


**Desfibrilagailu
Automatiko
Ezargarria
(DAE) daraman
paziente-
arentzako
eskuliburua**



**Arritmietako Unitatea
Medikuntza Intentsiboko Zerbitzua
DONOSTIA OSPITALEA**

Desfibrilagailu Automatiko Ezargarria (DAE) daraman pazientearentzako eskuliburua
José Manuel Porres Aracama
Arritmietako Unitatea
Medikuntza Intentsiboko Zerbitzua
Donostia Ospitalea

Argitalpena: Komunikazio Unitatea
Lege-gordailua: SS-650-2007

Bihotzeko gaixotasuna duzu, eta heriotza eragin diezazuketen arritmia larriak (bihotz-taupadaren maiztasun oso azkarra) izaten dituzu. Horregatik, DAE (Desfibrilagailu Automatiko Ezargarria) bat ipini dizugu. Medikuek aukera hori egin du, gaur egun DAE baino seguruagoa den medikamentuen bidezko tratamendurik edo operazio kirurgikorik ez dagoelako.

Irakur ezazu arretaz dokumentu hau. Bertan bihotzak erritmo normala nola mantentzen duen, arritmia-motak, eta DAEk takikardia larriak nola antzeman eta saihesten dituen azalduko dizugu modu errazean.

ERRITMO NORMALA


Bihotzak gorputz osora odola ponpatzen du. Organo hutsa da, eta lau barrunbe ditu (bi aurikula eta bi bentrikulu). Ponpa hidraulikoaren antzera funtzionatzen du: benetatik datorkion odolarekin betetzen da, eta uzkuartzean odola arterietara ponpatzen du. Bihotzak 60-100 taupada egiten ditu minutuko modu erritmikoan, erloju baten antzera, gorputz osoan odol-fluxu egokia mantentzeko.

Erritmoa azkarrago joaten da, ariketa egitean, emozioen erantzun moduan eta sukarra dugunean, eta mantsoago, aldiz, atsedenean eta lotan gaudenean.

Erlojua abian mantentzearen eta taupaden maiztasuna erabakitzearen arduraduna nodulu sinoaurikularra da, eta bihotzaren ezkerreko goialdean dago.

Nodulu sinoaurikularrak pultsu elektrikoa bidaltzen du, muskulu kardiakoa uzkuartzen da,

eta odola bihotzetik kanpora ateratzen da; ondoren, bihotza erlaxatu eta odolez betetzen da, hurrengo bulkada elektrikoarekin berriro husteko.



AD: eskuineko aurikula (Esa)
VD: eskuineko bentrikulua (EsB)
AI: ezkerreko aurikula (EzA)
VI: ezkerreko bentrikulua (EzB)



ARRITMIA

Arritmia da ohiko bihotz-erritmoaren edozein alterazio.


Takikardia dagoenean, bihotzaren taupadak normalean baino azkarrago doaz, eta brakikardia dagoenean, berriz, normalean baino polikiago.

Arritmia-mota asko dago; baina DAE jartzen diegun pazienteek bi izaten dituzte.

Takikardia bentrikularra:

Nodulu sinoaurikularrak ez du bihotzaren erritmoa markatzen. Bentrikuluaren zona bat seinale elektriko erritmikoak maiztasun handiagoz bidaltzen hasten da (minutuko 160-250 taupada). Maiztasun horrekin bihotzak denbora gutxi du bi taupadaren artean odolez betetzeko, eta gorputzera bidaltzen duen kantitatea askoz gutxiago da normalean baino.


Odol-falta honek zorabioa edo konortea galtzea eragiten du, eta palpitazio-sentsazioa, izerdia edo bihotzeko mina senti daitezke. Egoera horretan luze egonez gero, bihotza gelditu daiteke.



Fibrilazio bentrikularra:

Arritmia-mota honetan zona askotan sortzen dira bulkada elektrikoak, eta bihotza modu nahasian mugitzen da (har-poltsa baten moduan). Bihotzak ez du taupadarik egiten eta barrunbeak betetzen eta husten ez direnez, ez dago odol-zirkulaziorik. Bihotza gelditzea bezala da. Konortea oso azkar galtzen da (12-18 segundotan), eta bihotza 2-3 minututan taupadaka hasten ez bada, garun-lesio larriak eta heriotza gerta daitezke.

Arritmiak bat-batean eta ezustean agertzen dira, eta ez dago aurreikusteko modu segururik.




DESFIBRILAGAILU AUTOMATIKO EZARGARRIA

Bi osagai ditu, gorputzaren barruan kokatuak.

Sorgailua: “pila” ere esaten zaion arren, osagai gehiago ditu. Azalpean jartzen da, bularraldean, eta karkasa metalikoa du, kolpeetatik babesteko.

Barruan bateria, kondentsadoreak eta ordenagailu bat kokatzen dira.



Ordenagailuak gailu osoak funtzionatzeko informazio guztia dauka, eta memorian gordetzen du arritmia-prozesu guztiei buruzko informazioa, desfibrilagailua ezarri denez geroztik.

Elektrodoa(k): hari bat edo gehiago dira eta sorgailua bihotzarekin konektatzen dute. Bulkada elektrikoak bidaltzen ditu sorgailutik bihotzera eta jardun kardiakoa bihotzetik sorgailura pasatzea eragiten du.

Programagailua: ezarri bitartean eta berrikusketakontsulta bakoitzean mediku arduradunak osagai guztiek ondo funtzionatzen duten aztertzen du, eta arritmia gertatu diren begiratzen du sorgailuaren ordenagailuarekin konektatzen den kanpoko ordenagailu baten bidez.

Izan dituzun takikardiak DAEren memorian jasota daude eta beraiek analizatuz eta aztertuz medikuak jakin dezake zein den tratamenduaren eraginkortasuna, eta, era horretan, zure gaixotasunaren eboluzioa jarrai dezake.

Berrikusketetan bateriaren kontsumoa eta iraupena ere aztertzen dira, bera aldatu baino lehen.

ARRITMIAK ANTZEMATEA ETA TRATATZEA

DAE zure bihotzeko erritmoa etengabe aztertzen ari den gailua da. Erritmoa markatutako mugatik areago badoa, takikardia dagoela antzematen du. Horregatik da DAE hain onuragarria, bihotz-erritmoa etengabe zaintzen ari delako. Eta ustekabeko egoerei egoki erantzuteko modu bakarra adi egotea da, egunean 24 orduz eta 365 egunez urtean.

Medikuak ezagutzen ditu zuk pairatzen dituzun edo paira ditzakezun takikardiak. Datu horiekin DAE programatzen du honek, bihotz-maiztasunak muga bat gainditzen duenean takikardiatzat har dezan. Muga hori aldatu edo doitu daiteke,

aldizkako berrikusketetan. Arritmia antzemateko behar duen denbora oso laburra da: 1-5 segundo. Hortaz, DAEk **badaki** takikardia duzula zu konturatu baino lehen.

DAEk arritmia bati atzeman dionean, abian jartzen ditu mekanismoak, berarekin bukatzeko.

Bi tratamendu-mota ditu:

Estimulazio antitakikardikoa: takikardia bentrrikularra diagnostikatzen denean erabiltzen da, eta estimulu azkarrak eta intentsitate baxukoak erabiltzen ditu. Zuk ez duzu ezer nabaritzen eta takikardien %60-70ekin buka dezake.

Talka: arritmia oso azkarra denean erabiltzen da, edo estimulazio antitakikardikoak arazoa konpondu ez duenean. Kolpe handi bat nabaritutako duzu bularrean edo bizkarrean, baina ez da mingarria.

Gehienetan talka batekin arritmia konpontzen da, baina hala ez bada, DAEk talka batzuk eman ditzake jarraian.

Batzuetan pazienteak zorabioa edo palpitazioak nabaritzen ditu talka baino lehen, baina DAEk oso azkar lan egiten du eta, normalean, talka sintomak baino lehen gertatzen da eta ezustean harrapatzen zaitu.

LEHENENGO EGUNETAN

DAE ezarri ondoren, 2-3 egunen buruan zure etxera joango zara. Lehen Mailako Arretako medikuarekin hitzordua eskatu eta altako txostenak eraman behar dizkiozu. Zure medikuak jakin behar du DAE bat ezarri zaizula, eta medikazioan egin zaizkizun aldaketak ere bai.

Zauriaren zainketa

Lehen Mailako Arretako erizainak azalduko dizu zauria sendatzeko modurik onena zein den, eta bera sendatzeko osasun-zentrora joan behar duzun edo etxean bertan egin dezakezun. Edozein kasutan, kontuan izan gomendio hauek:

1. Zauria garbi eduki ezazu, gaza eta esparatrapu batez estalita. 24 orduz behin, sendaketa egin, Mercromina edo Povidona iododuna erabil dezakezu.
2. Puntuak kendu baino lehen, ez ezazu zauria urez busti. Zauria bustiz gero, ondo lehortu berriro estali baino lehen.


3. Puntuak edo grapak 10-12 egunen buruan kendu behar dizkizute zure osasun-zentroan.
4. Lehenengo 15 egunetan, ez ezazu mugimendu zakarrik egin eta pisurik ez jaso DAE ezarrita dagoen aldeko besoarekin. Mugimendu arinak egin behar dituzu, horizontalean zein bertikalean, aurrerantzean minik edo mugarik ez izateko.
5. Zauria gorrituta, beroa eta minberatuta badago, Lehen Mailako Arretako medikuarengana joan zaitez, tokiko infekzioa dagoen begiratzeko.

EGUNEROKO JARDUERAK

DAE kanpoko eraginetatik -mekanikoak eta elektrikoak- ondo babestuta dago, eta etxean eta lanean erabiltzen diren aparatu gehienek ez diote eragiten. Hala ere, jakin behar da sistemak alterazioak paira ditzakeela eremu elektriko eta magnetiko handien eraginpean.


Ondorengoak arazorik gabe erabil ditzakezu:

- Etxetresna elektrikoak: mikrouhin-labea, telebista, bizar-makina elektriko, labana elektriko, xurgagailua, ile-lehorgailua, irabiagailua eta abar.
- Urrutiko kontrola, hari gabeko telefonoa, bideo-jokoen kotsola.
- Ordenagailu pertsonala, idazmakina elektriko, fotokopiagailua, eskanerra, faxa eta bulegoko bestelako gailuak.




Kontuz ibili behar duzu ondorengoekin:

- Brikolajeko tresna txikiak, hala nola, zulatzeko makina eta bihurkin elektrikoak. Erabil ditzakezu, baina DAetik 25 cm-ra (arra bete inguru) baino hurbilago ez jarri.
- Automobilaren konponketak: abio-motorra elektriko da. Alternadoretik arra bete inguru baino hurbilago ez jarri.
- Motor elektriko industrialak. Motor hauek iman ahaltsuak daukate bere barruan eta DAeri eragin diezaioke, metro batera egonda ere. Ez egon motore hauetatik hurbil.



- Tamaina handiko bozgorailuak (rock emanaldietan erabiltzen direnak beza-lakoak). Barruan iman handiak dauzkate. Ez egon metro batera baino hurbila-go.



- Lapurreten kontrako arkuak: oro har, ez dute arazorik ematen. Zeharkatu ditzakezu arazorik gabe. Baina ez gelditu beraien erdian denbora askoan.

- Metalak detektatzeko arkuak (aireportuak, epaitegiak eta abar). Ez itzazu zeharkatu. DAE eramailearen txartela aurkeztu ezazu.


- DAE ezarrita dagoen aldean kolpe zuzenak har daitezkeen jarduerak saihestu: ehiza eta borrokako kirolak, esate baterako.

- Sakelako telefonoek interferentziak sor ditzakete, DAE hurbil egonez gero. Erabil ditzakezu, arra bete inguruko distantzian edukiz gero: sakelako telefonoa DAE ez dagoen aldeko eskuarekin heldu eta alde horretako belarran jarri.



JARDUERA FISIKOA

Lehen esan dugun bezala, DAEk etengabe zaintzen du zure bihotzaren erritmoa, eta bakarrik abiatzen da takikardia dagoenean. Zure bihotzaren gaitasunean



ez du eragiten. Ez digu indarririk ematen, ez kentzen; hortaz, lehenengo 15 egunak igarotakoan, DAE ezarri baino lehen egiten zenituen gauzak egin behar dituzu. Jarduera fisikoa ona da zure bihotzarentzat, eta DAE programatuta dago esfortzua egiteagatik gertatzen den takikardia eta gaixotasunarengatik gertatzen dena ezagutzeko eta bereizteko. Ariketan zehar talka sentituz gero, gelditu eta apuntatu ezazu, hurrengo berrikusketan medikuari esan ahal izateko.

BIDAIAK

Lasai bidaiatu dezakezu, nahiz eta DAE jarrita izan. Ez ahaztu DAE eramailaren txartela eramatea. Kanpoan zaudenean arazorik izanez gero, ospitalera joan txartelarekin, medikuak jakin dezan zein den ezarri zaizun desfibrilagailu-mota eta bere funtzionamendua.

MOTORDUN IBILGAILUAK GIDATZEA

DAE ezarrita duen pazienteak ezin da gidari profesionala izan (kamioia, autobusa, anbulantzia eta abar). Automobil pribatuaren inguruan, badira ezagutu beharreko zenbait alderdi.

DAEren talkak, normalean, ezustean harrapatuko zaitu eta bat-bateko muskulu-uzkurdura eragingo dizu. Une horretan gidatzen ari bazara, bolantea aska deza-kezu eta, ondorioz, istripu-arriskua oso handia da.

Talka baino lehen konortea galtzen duen paziente gutxietako bat bazara, arriskua are handiagoa da.

Arau orokor gisa ondorengoak gomendatzen dira:



- DAE ezarri ondorengo lehenengo 6 hilabeteetan ez gidatu. 6 hilabete horietan talkarik izan baduzu edo konortea galdu baduzu, talka izan edo konortea galdu ondoren, 6 hilabete itxaron behar duzu gidatu baino lehen.
 - Handik aurrera gidatu dezakezu distantziak motzak badira (gehienez ere, 80-100 km), abiadura moderatuan eta, ahal izanez gero, laguntzaile batekin.
- Emergentsia-egoera batean autoa ezingo duzula kontrolatu uste baduzu, hobe da gidatzeari uztea.

HARREMAN SEXUALAK

DAE eramateagatik zure harreman sexuak ez dute zertan aldatu. Lehenengo 15-30 egunak igarotakoan, harreman sexualak izaten has zaitezke. Arraroa da jardura sexuarekin zehar talka izatea, baina, hala izanez gero, gelditu eta apurka ezazu, hurrengo berrikusketan medikuari esan ahal izateko. Zure bikotearengatik ez izan kezkarik, kolpe txiki bat baino ez du nabaritutako.

EBAKUNTZA KIRURGIKOAK EDO ODONTOLOGIKOAK

Edozein medikurengana joanez gero, DAE ezarrita duzula esan. Ebakuntza kirurgikoren bat egin behar badizute edo dentistarengana joan behar baduzu, esan ezazu DAE ezarrita duzula, bisturi elektrikoa ez erabiltzeko edo kontuz erabiltzeko.



AZTERKETA ERRADIOLOGIKOAK

Ez dago arazorik erradiografiak, ekografiak edo eskanerrak egiteko; hala ere, komeni da mediku arduradunari DAE duzula esatea. EZIN DIZUTE erresonantzia magnetikorik egin, iman ahaltzuekin lan egiten dute, eta DAE itzali edo betiko hondatu dezakete.

DESKARGAK EDO TALKAK

Noizbait takikardiaren bat izango duzu (horregatik, hain zuzen, ezarri zaizu DAE). Talkarik sumatuz gero, ez kezkatu, normala da hori gertatzea. Normalean talka izan ondoren ondo sentituko zara; beharbada zorabio txiki bat nabarituko duzu, besterik ez. Hurrengo berrikusketan talkari buruzko datu guztiak atera ahal izango ditu medikuak DAEn memoriatik.

Baina, zenbait talka jarraian edo egun batzuetan zehar talkak nabarituz gero, medikuarekin harremanetan jarri behar duzu horren berri emateko. Ziur asko berrikusketako data aurreratuko dizute.

Beste sintoma batzuk badituzu, ordea, bularreko mina, nekea, edo besteren bat, medikuaren asistentzia eskatu, DAE ezarri baino lehen egingo zenuen moduan.

BERRIKUSKETAK

4-6 hilabetez behin, gutxi gorabehera, berrikusketa izango duzu, DAEn funtzionamendu egokia segurtatzeko, eta zenbat takikardia izan dituzun eta beraiek mozteko DAEn eraginkortasuna jakiteko. Berrikusketa hauetan DAE aztertuko dute. Zure ohiko kardiologoarekin ere jarraitu beharko duzu berrikusketak izaten.

DAEn IRAUPENA

Bateriaren iraupena 5 urtekoa da, gutxi gorabehera, betiere erabileraren arabera. Takikardia asko izanez gero, gutxiago iraungo du. Berrikusketetan medikuak bateriaren gastua neurtuko du, eta noiz aldatu behar den esango dizu. Aldaketa

ondorengoan datza: larruazala ireki eta agortutako DAE aterako dizute, hariak edo elektrodoak aldatu gabe, eta berri bat ezarriko dizute toki berean. Bakarrik 24 orduz egon beharko duzu ospitaleratuta.

DAE ERAMAILEAREN TXARTELA

Desfibrilagailu Automatikoaren Eramaile-txartela emango dizute. Bertan zure datu pertsonalak, ezarrita daukazun gailuaren datuak eta ezarri zizuten ospitaleko datuak daude.

Eraman ezazu beti aldean txartel hori. Edozein osasun-zentrotara joaten zarenean aurkeztu ezazu.

Bidaia-tuz gero, ez ezazu ahaztu zure txartela, aireportuetako kontrolak pasatzeko beharko duzu eta.

ZALANTZAK

DAEri buruz dituzun zalantza guztiak apunta itzazu, eta zure medikuari galdetu hurrengo berrikusketan.

“DESFIBRILAGAILU AUTOMATIKO EZARGARRIA DARAMAN PERTSONARENTZAKO TXARTEL-EREDUA”

Aurrealdea

	Osakidetza	DONOSTIA OSPITALEA HOSPITAL DONOSTIA	
TARJETA DE PACIENTE PORTADOR DE DESFIBRILADOR AUTOMÁTICO IMPLANTABLE (DAI)			
Paciente:			
Dirección:			
Ciudad:		PAÍS:	
Tel.		Fecha implante:	
DAI	Modelo	Nº serie	
Electrodo	Modelo	Nº serie	
Electrodo	Modelo	Nº serie	
Médico	Tel.		

Atzealde

- Presentar esta tarjeta siempre que acuda a un centro sanitario.
 - Puede realizar desfibrilación externa transtorácica si es necesario. Utilice la disposición de las palas y seleccione la energía de manera habitual.
- No coloque nunca un imán sobre el D.A.I. sin supervisión médica adecuada.

**Si se encuentra esta tarjeta extraviada, por favor
devuélvala al:**

**HOSPITAL DONOSTIA
Servicio de Medicina Intensiva - Unidad de Arritmias
Pº Dr. Begiristain s/n.
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN**